


ttipi-ttapa

1993.eko Otsailak 11

103. zenbakia

dohain banatzen da

SARAN BERRIZ ERE IKASTOLA




ttipi-ttaparen 92 urtekaria

URTE OSOA LIBURU BATEAN BILDUA

- ▶ Urteko berririk garrantzitsuenak herriz herri
- ▶ Elkarrizketak eta eritziak
- ▶ Erreportaiak
- ▶ Mahai-inguruak
- ▶ Eskualdeko kirolei errepasso zabala
- ▶ Telefono Agenda bete betea

ttipi-ttaparen 92 urtekaria

Herri guzietan salgai egonen da



KONPLEMENTOAK

ZURE BAINURAKO BEHAR DUZUN GUZTIA:

- x MOBLEAK
- x GRIFERIAK
- x MANPARAK
- x AZULEJOAK
- x SANITARIOAK
- x OSAGARRIAK

*Presupuestoak
Konpromisorik
gabe*

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

Lesakako Iturria anaiak

ESKEINTZA BEREZIAK

Armairu lakatua
+ lababoa + grifoa + ispilua
Guztia, 28.500 pztatan
BEZ barne

Juan Arana, 3

Tfnoa eta faxa: (943) 611767

IRUN

non - zer

-
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24** **HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 25** **KIROLAK:** Aizkol apostua Donezteben, hilaren 14ean, Patxi Mindegia eta Senosiainen artean.
-
- 26** **ERREPORTAIA:** Bidasoa KulTur Zerbitzua (BKZ): turismoa eta kultura bertatik gestionatzeko inizatiba berria.
Aitor Arozena
-
- 28** **ELKARRIZKETA:** Saran berriz ere ikastola. Erakasle eta burasoekin solasean.
Joxemanuel Irigoien
-
- 30** **MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 5.300 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernu...

Inprimategia: Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248/510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

Elizondo580924

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarar515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Botikak

► Otsailaren 13-14ean, Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

► Otsailaren 20-21ean, Arantza, NARBARTE eta F. Elizalde (Elizondo).

Deialdiak

► ARANTZA, otsailaren 11an, Euskara Batzordearen bilera.

► ARANTZA, otsailaren 18an, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen aholkularitza batzordearen bilera.

► Otsailaren 25ean, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen batzorde erabakikorraren bilera.

lñauteriak

► BERA
13an kaldereroak, 18, 20, 21 eta 22an.

► LESAKA
20, 21, 22 eta 23an.

► DONEZTEBE
18, 19, 20 eta 21ean.

► IGANTZI
12 eta 13an.

► GOIZUETA
21, 22 eta 23an.

► ARIZKUN
22 eta 23an.

Erakusketak

► BERA
Otsailaren 13tik 28ra argazki erakusketa Kultur Etxean, Gure Txokoak antolatua.

Ikastaroak

► ELIZONDO
JAZZ DANTZA

16 urtetik gorakoentzat. Izen emteko epea hilaren 15a arte, 581279 eta 580249 ifnoetan.

Klaseak Arizkunenean astearte eta ortzegunetan 5,30etan, hilaren 16tik apirilaren 15era. *Irakaslea:* Consuelo Faust.

Bota bertsoa**Itsaso ALEMAN**

Baztango Bertso Eskolakoa

Gaia: San Valentín eguna**Neurria:** Zortziko haundia

Badute festa maiteminduek ondoko asteburuan Cupidok geziz eman zieten bihotzen barru barruan bikote guztiak elkarturik ilargi beteko gauan San Valentín eguna omen da otsailaren hamalauan.

Bikoteko batek besteari oparia egin beharko mutilak egin dion katea jarriko dio lepoko neskak egingo du erlojuaz ez da atzera geldituko zorianak maiteminduei zorianak denendako.

AGENDA

Zinema

▶ LEITZA

Otsailaren 12an 10,30etan eta 14ean 8etan "Juego de patriotas", 14ean 5etan "Tres hombres y una pequeña dama". Otsailaren 19an 10,30etan "Como hacer el amor con un negro sin cansarse", 21ean 5 eta 8etan, "Alien 3".

▶ DONEZTEBE

Otsailaren 13-14an "Distrito 34 - Corrupcion total". Otsailaren 20-21an "Qué suerte, llegaron los parientes".

Hitzaldiak

▶ ARANTZA

«ELKARRI»

Otsailaren 12an, arratseko 8etan, Zahar Txokon «Elkarri» (Euskalerriko pakea lortzeko giza mugimendua) taldearen hitzaldia.

Gastronomia

MAKAILO TXIGORRAK

Osagaiak 4 lagunendako: Makailoa, olio, ogirina (150 gr.), 2 baxo garagardo, gatza, arraultze xuringo bat.

Ogirina eta gatza ontzi batetan jarri; bi goilarakada olio nahasi eta gero garagardoa, pixkanaka-pixkanaka, masa egin arte. Utzi ordu pare batez ukitu gabe.



Jose Emilio Txoperena
'Soltxan'ek emana - LESAKA

Arraultze xuringoa ongi irabiatu peila egin arte, eta,

kontu haundiz, masarekin nahasi.

Olio ausarki paratu berotzen zartaginean; ongi berotu denean makailoa -puska ttikietan egina- masan bastatu eta frejitu.

Oharra: Ateratzerakoan, paperezko serbiletan gainean ezarri, olio txukatze-ko.

Baserriko feria



▶ ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kiloko): 6.000 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 143 pzta/kilo **Zerramak**: 60-80 pzta./kilo bizirik.

▶ BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....570
1.koa.....550
2.koa.....530

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....585
1.koa.....565
2.koa.....545
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 430 Pzta./Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 15.000 eta idixkoak 25.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 30.000 eta idixkoak 40.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soina,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



Asier Arburua
Etxalarko gaztea

- ▶ Kirola ala estudioak? Kirola.
- ▶ San Juan Bosco ala San Fermin? San Fermin.
- ▶ Erropak hik erosten dituk? Bai.
- ▶ Ohatzea egiten duk? Batzutan.
- ▶ Elizara ala soldadutzara? Ez batera eta ez bertzera
- ▶ Su ta Gar ala Barricada? Sutagar.
- ▶ Gogoratzen duk hire bortzgarren abizena? Ez, momentu honetan ez, pixkot nerbioso nago.
- ▶ Zortzi orduz lo egin ala siesta? Zortzi orduz lo egin eta gero bi ordutako siesta.
- ▶ Musika zuzenean aditu ala diskoak? Zuzenean, martxa gehiago du.
- ▶ Sagardotegietara joateko ohitura baduk? Ez, behin bakarrik egon naiz.
- ▶ Biziorik ez duk edo zer? Tabakua eta kirola, bakarrik.

Zinema independentea

Orain berriro kritika ttiki bat izan genuen USAko zinea bertze herrialde-takoa baino gehiago aipatzen genuela erranez. Egia da, ipar-amerikarrak inbertitzen bait dute diru gehiena produkzioan eta batez ere distribuzioan munduan zehar; beraganatuak dauzkatelako publizitate modu gehienak. Gure pantailak USAko zinemaz estaliak egoten direnez, aipagarrienak bereziz egiten ditugu kritikak. Zinema independentea egiten da USAn batez ere,



Detroit, Long Island, Texas, Idaho, etabar... Filma horien egileak urte guttira hagitz eza-gunak izanen ditugu. Filmahorien argumentuak eguneroko errealitatea, drogak, arraza gutxiengoak, homosexualitatea, bizien

tratamendu estetiko eta etiko desberdin eta radikala. 60. hamarkadan independiente ziren Jonas Mekas, Hirley Clarke, Andy Warhol, John Cassavetes edo Paul Morrissey gaur ezagunak dira. Publizitate

mundutik, bideo musikalen mundutik abiatutako amateurak dira.

Gaur egungo lanetatik, Hal eta Nick Gomezek egindako "Trust" azkar ikusi ahal izanen dugu Euskadin.

MARIANO



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

CLAAS S. Semper



SAME

Nekazal Tresneria

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238 Tfnoan, Agerra Industrialdean

Bertizko Kontsorzioa Madrileko Fitur ferian aurkeztu zen

Bertizko Turismo Kontsorzioa bere burua aurkeztu zuen Madrilen ospatu den Fitur Nazioarteko ferian, "Nafarroako agroturismo egunaren" barnean. Ekitaldira Nafarroako Gobernuak Industri, Komertzio eta Turismo kontseilaria den Rodriguez San Vicente, Pedro Perez Uriz kontsor-

zioko lehendakaria eta Joxepi Mihura, agroturismo etxeetako elkarteko lehendakaria joan ziren, bertzeak bertze.

Bertzalde, Bertizko Turismo Kontsorzioko logotipo bat bilatuz eratu den logotipo lehiaketara lanak aurkezteko epea martxoaren lehen bukatuko da.

Soziolinguistika ikastaroan izen emateko epea 19an bukatzen da

Euskara Zerbitzuek antolatuta



Baztan, Malerreka eta Bortzirietako euskara zerbitzuek antolatutako soziolinguistika ikastaroan izen emateko epea otsailaren 19an bukatuko da, 3.000 pezeta ordainduz (langabetuak eta ikasleak ezik). Ikastalde mugatua izanen da eta matrikula orriak, Herriko Etxean, euskaltegian edota euskara zerbitzuan jaso daitezke.

Ikastaroaren hasiera

otsailaren azkeneko astean (22tik 26ra) egingen da, aurkezpen hitzaldiak eginez hiru eskualdeetan eta iraupena 6 astetako izanen da, apirilaren 31a arte zehazki errateko.

Ikastaroaren lehen helburua soziolinguistikarenoinarrizko kontzeptuak ezagutzera ematea da. Gaiak, euskararen historia eta egoera, udal elebakarrak, bertako hizkerak eta euskara batua...



Leitzaldeko sei herrietako abastezimendu obrak 300 milioi ingurutan egingen dira Nafarroako Gobernuak erran duenez. Obra hauek Arano, Areso, Goizueta, Leitza eta Araitx-Betelun egingen dira.

INFORMAZIOA:

- ☞ Nominak
- ☞ Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratu bonifikatuak
- ☞ Enpresa berrien sortzea
- ☞ Diru-laguntzak
- ☞ Errenta Deklarazioak
- ☞ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



JULEN LEKUONARI ETA FAMILIARI ANIMO!

Julen Lekuona kotxe istripu baten-gatik «UVI»an dago, eta bera eta bere familia animatzeko idatzi ditut honako lerro hauek.

Gaia: Aupa Julen!
Doinua: Maritxu nora zoaz eder galant hori.

Negarraren saminez zintzurra josia gogorra izaten da auniztan bizia optimista bazera geroa zuria, txarretan ere beti onena begira. Zoria aurkitzeko badut nik bidia, gaur goizin ikusi dut haur baten irria, zuhaitzen adarretan kantari txoriak, negua pasaz gero dugu udaberria.



Oskar Goñi Petrirena
Bera, 1993ko otsailaren
4ean

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

SAROBÉ okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak



Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN

GRUPO ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

BORTZIRI

ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIK

- × HERRIAK
- × MENDIAK
- × TURISMOA
- × TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANEA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

Iñauteri giroan sartzeko prest

Kaldereroak 13an, ortzegun gizen 18an, Iñudeak eta Artzaiak 21ean eta mozorroak 22an

JOXEMANUEL IRIGOIEN

“Iñauteriak-93”aren egitaraua prestatua dago honez gero, eta bertze urte-tan bezala Eskolak, Gure Txokoa eta Udal Kultur Batzordearen eskutik.

Iñauterietako programa Kaldereroen konpartsak emanen dio

hasiera iñauteriari 13an arratsaldeko 7etatik aintzineren. Otsailaren 18an, ortzegun gizen, OHOk 3 ikastetxeetako ikasleak “Iñudeak eta Artzaiak” taldea osatuz ibiliko dira arratsaldean. Haundien “Iñude eta Artzaiak” taldea, berriz, 21ean ateriko da goizeko 10etan Eztegarra pilotalekutik eta igande arratsalde horretan dantzaldia izanen da Altzateko Plazan. Astelehenean, ‘zingar-arraultzea’ eta arrats partean Mozorroen ibilaldia eta dantzaldia Alzateko Plazan.



Aurten ere haur eta haundiak 'Iñude eta Artzaiak' dantzatuko dute karriz karriz
GOIKO

W ttipi-flash

- Nafarroako Bertsolari Txapelketaren final** aurreko kanporaketa Berako Kultur Etxean burutuko da martxoaren 28an.
- Polikiroldegiko** eraikitze lanak aintzindu xamar daudela ematen du eta iragarri denez, luze gabe arras bukatua egonen da
- Julen** Lekuona gaztea larriki zauritua suertatu zen otsailaren 3an Belaten izandako istripuan.

Liburutegia zabalik dago Kultur Etxean

Otsailaren 8az geroztik zabalik dago Berako Liburutegi Publikoa. Ordutegia, momentuz, 5,30-7,30ak bitartekoa izanen da astelehenetik ortziralera eta hilabeteko lehen bi larunbatetan 10etatik 12etara. Bazkide edo sozio egiteko karneta neurriko argazkia, norberaren

datuak eta sinadura behar dira. Hamalau urtez behitiko kasuan, guraso edo pertsona helduago baten sinadura eskatuko da.

Aipaturiko karnetak Liburutegian sartzea ahalbidetzen du, eta baita, bertatik gehenez hiru liburu 15 egunetarako etxerat eramatea.



Carmen Barrena, liburuzaina

LAINO
%30eko DESKUENTOAK
San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA
Alzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA

KLOXKA

Legia 11 - 63 06 64 BERA

KIROLAK ZELA
Alzate 6, Tfnoa: 63 05 98
BERA

BOAN TAILERRA

CITROËN Banatzailea
KOTXE BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
Herriko Etxeko Plaza - BERA

OKANE
Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

IRAGARKI HAU 5.300 ETXETAN SARTUDA
ZUREA ERE SARTUKODA
PUBLIZTATERAKO
ttipi-ttapa ERABILIZGERO

LESAKA

Iñauteriak besta: giroa ekarriko dute

Zaku-zaharrena da egitarauaren ekitaldirik aipagarriena

AITOR AROZENA

Iñauteriak hilaren 20, 21, 22 eta 23an ospatuko dira. Lehenbiziko mozo-roak larunbatean ikusiko dira. Igandean, zaku-zaharren ohizko ibilbidea izanen da arratsean Arrano elkarteak antolatuta eta San Fermin jubilatuko elkarteak ere bazkaria egingen dute. Astelehenean, karrozen desfilea burutuko da. Astearte, baserritarrentzat egun berezia izanen da eta Fraindarrak eta Goitarrak baserriz baserri ibiliko dira.



lazko Iñauterietan imajinario haundiko mozo-roak ikusi ziren

KARMELE

Juan Carlos Pikabearen margoak ikusgai egon dira Irungo Amaia kultur aretoan



80 margolarien artean bigarren gelditu ondoren, Juan Carlos Pikabeak bere hiru koadro erakusteko eskubidea izan du Irungo Amaia kultur aretoan, bertze zenbait lanekin batera. Iruñean ere izan dira bere lanak eta agian, udan Donibane Lohitzunen egingen du bertze erakusketa bat.

AITOR

ttipi-flash

- **Zakurren** jabe guztiak hilaren 13a baino lehen pasa beharko dute Herriko Etxeko bulegotik, beraien zakurrak zentsuan apuntatzera.
- **Latsaga** peñak antolatutako rock kontzertuak jendetza polita ekarri zuen herrira. Peñakideak gustora daude, zorrak kitatu eta oraindik dirua sobratu baitzaie.
- **Oiartzungo** mugan paratutako itxiturak gorabehera aunitz sortu ditu bi udalen artean eta orain arte egindako bileretan ez da irtenbiderik lortu. Ekologistak diotenez, animalien (basurde eta azeriak, batez ere) mugimenduak galeratzen ditu itxiturak. Baserritarrek, berriz, oiartzuarren azientak pasatzen zirela eta kexu zeuden. Udaltzatzen eztabaida gogorra izan zen EA eta alkatearen artean prentsan agertutako erranen ondorioz.

LORA DENDA

TIPIRULA
Bittiria LESAKA

Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA

IRUBIDE

OSTATUA ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

Frexkuena
zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa:637264

★ **KIXKUR** ★

ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

Autoen ikusketa teknikorako tailerra Latsabe azpikaldean?

Horretarako herriko baimena izanagatik, Nafarroako Gobernuarena ere beharko da

PELLO APEZETXEA

Latsabe azpikaldea bete eta zelaitze lana egitekotan dabilta. Zertarako izanen eta, autoren rebisioa egin asmoz tailerren bat jaso nahi dute. Herriko baimena izanagatik, Gobernuarena ere beharrezko izaten denez, karretera inguruan delarik eta gehiago, ikusteko dago oraindik asmoak asmo huts geldituko diren edo ez. Ez da lehen aldia, Latsabealdean zerbait eraiki edo jasotzea pentsatu, eta Gobernuak ez baimendu izana; gasolindegia, errate baterako.

Igerilekuak...

54,7 milioi pezetatoko aurrenkontua du eta haue-tatik 2 milioi, proiektua



Argazkiak: PELLO

Andutzeta karrikak hobekuntza haundia hartu du, dudarik gabe, eta proiektuan ageri zena baino politagoa egin da, gainera, hori pasatzen direnei harri zahar eta berriz gozatzeko aukera eskeiniz.

egiteagatik Chocarro eta Urmeneta arkitektuei ordaintzeko.

Iñauteak indartu

Udala, Altxata Elkarteak eta gazteen arteko bilerak egin dira egun hauetan,

Iñauteetako egun nagusiarri bederen bizitasan pixko bat eman nahi zaola eta. Jendearen parte hartzea bultzatu, sariketa moduren bat pentsatu, herriko giroa hobetu, musika gastueta-



Zura tailatzaile "zaharretakoa" dugu Jexux Ansalas. Gogoko duelako aritzen da lan horretan, kobratu ere bertze edozein lan ordua bezala kobratuz. Ordu gehiegi ez badu horretan sartzen ere, zenbait kutxei aurpegia politagotu dio. Nork segituko du horrelako lanetan? Bera irakasteko prest legoke, baina ba ote da ikaslerik?

rako laguntza eman: bildu direnen arteko burutazioak dira.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - **LESAKA**

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko
toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - **LESAKA**

«USO A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

KOSKILLA

OSTATUA

Larunbatetan
mus txapelketak
sari ederrekin

Zarandia 4 - **LESAKA**

KOXXKONTA



Sagardotegia
ZABALIK

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

ARRANO



OSTATUA
Legarrea - **LESAKA**

IGANTZI

Igantzikoko Arkupeak elkarteko bazkideen besta ospatu zen

Iñauteriak ere hasteko punttuan dagozi

OSKAR TXOPERENA

Otsailaren 4ean izan zen Igantzin Arkupeak elkarteko bazkideen besta. Ohitura denez 11etan eman zioten hasiera mezarekin. Meza bukatu eta bazkal aintzinetik Biltokin bildu ziren urtean zehar egitekoa dutenari errepasso emateko eta Arkupeak elkarteko bertze zenbait kontu aipatzeko. Azkenik Herriko Etxean bazkaldu ondotik arratsalde osoan dantzan pasatzeko aukerarik ere izandu zuten. Zorionez, ederki aldatu dira denborak adinekoentzat ere.

Iñauteriak gain-gainean

Zenbait urtetan pattal



Aurtengoz bukatu da Biltokiko mus eta partxis lehiaketa. Amaia Sein eta Tere Txoperena gelditu ziren txapeldun partxisean Patri Arburua eta Begoña Etxeberriari irabaziz eta musean, berriz, Marino Zelaieta eta Juan Ramon Retegik irabazi zuten txapela Iñaki Goienetxe eta Jabier Taberna garaituz. Hirugarrenek ere bazuten saririk.

xamar ibili badira ere, gogor eusten diote gazteek beren antolaketari azken urteotan. 12 eta 13a izanen dira aurtengo egunak eta programa berriz, ohizkoa:

Ortziralean Bentan eginen dute mozorroek eskea eta ondotik Biltokin afuldu. Larunbatean, herrian eta gainerako auzoetan ibiliko dira. Arratsean Gregorio

Mitxelenarekin izanen da musika. Aditu dugu baita ere larunbat arratsalderako haurrentzat mozorro lehiaketa bat egin nahirik dabilzala. Ea gauzatzen den haurrak beti bezala deusgabe geraez daitezen.

Goizuetatik mendiz

Agindu bezala, mendizale talde polita etorri zen Goizuetatik herrira urtarriaren 31an. 25 inguru etorri ziren bortz ordu baino gehiago mendian pasatuz. Mendian ibiltzen den Igantzikoko taldeak egin zien harrera eta Biltokin bazkaldu zuten elkarrekin. Zazpitan edo itzuli ziren autobusez. Hemengoak erraten zuten bezala laister itzuliko omen diete bisita.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - **BERA**



KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**



ORDOKI

ALTZARIAK

Estilo guztietako mogleak

ERAKUSKETAK:

Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

Larunbat
arratsaldetan
zabalik

Hiru herritarrek parte hartuko dute bertsolari txapelketan

Amaia eta Aitor Telletxea eta Andresenekobordako Luis Etxeberria

MIRARI eta MARTA

Aurtengo Nafarroako Bertsolari txapelketan herriko hiru bertsolarik hartuko dute parte. Orain arte Madariaga anaiak parte hartzen bazuten ere, aurtengoan parte hartuko dutenak lehen aldiz eman dute izena: Aitor eta Amaia Telletxea, 16 eta 17 urtetako anai-arrebak eta Luis Mari Etxeberria Andresenekobordakoa, mahai inguruan eta lagun artean kantatzetik jende aurrera kantatzera pausua eman duena.

Amaiak martxoaren 7an izanen du bere saioa Etxarri-Aranatzen. Aitor eta Luisek, berriz, hurbilago



Aitor eta Amaia Telletxea gazteak lehen aldiz eman dute izena Bertsolari txapelketan. Beraiekin batera Luis M^o Etxeberria airtuko da

izanen dute beren saioa, zehazki errateko, Beran, martxoaren 28an.

Inork ere ez du Iruñean apirilaren 4ean ospatuko den finalera ailegatzeko esperantza haundirik bai-



no prueba egitea ez da inoiz kaltegarria izaten. Jendea animatzera joan dedila.

Ekaitza elkarteko bilera

Otsailaren 13an, larunbata, gaueko 8etan ur-

teko bilera orokorra izanen da Ekaitza elkartearen.

Hiru puntu nagusien buruz solastuko dute: 1993ko diru kontua, Junta direktiba edo zuzendari batzordea berritu eta bazkide berrien zerrenda izendatu.

«Elkarri» mugimenduaren hitzaldia

Otsailaren 12an, ortzitala, gaueko 8etan Zahar Txokora «Elkarri» taldeko (Euskalerriko pakea lortzeko bildu den giza mugimendua) zenbait ordezkari etorriko dira, mugimendu honen helburuetaz solasteko.

MOLINERO PINTURAK



Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40 BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



ESTETIKA • SOLARIUM
GIMNASILEKUA
Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA

SUNBILLA

Iñauteri ikusgarriak
aurtengoan ere

IOSUNE ETA IXABEL

12 bat karroza presentatu ziren Iñaute igandean. Jendearen gustokoenak Oesteko dilijentzia eta piraten barku haundi bat izan ziren. Desfilearen ondoren frontoira joan zen jende guztia, zezenak zeudela iragarrita bait zegoen. Hiru "torero" atera ziren izugarritzko "faena" eginez banderilla eta guzti. Lehenagotik proba konbinatua izan zen, neskak mutilei gailenduz. Elkartearen bazkaria egin zuten eta ondoren musika.

Gaupasa ere izandu zen larunbatean, baserri errearen alde eta 200 bat pertsona bildu ziren.



ZALDUA



Beatriz

ILEAPAINDEGIA

San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ilepaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

MENDI HOTELA



DONAMARITAKO BENTTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA



FOTO
MENA
ELIZONDO

Ezkontzetako
erreportaiak
argazkiak eta
bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
ELIZONDO

Eta orain, zure
koloretako argazkiak
**ORDU BATEZ
ERREBELATUAK**
ditugu

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAIEN

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - DONEZTEBE

Zuhaitz landatzea egin da Amesketa mendian

30.000 bago eta abeto edo izei plantatu dira bi urteotan

PELLO ETXEGIA

Donamariak mendi aunitz baldin baditu ere, franko soilduak ditugu azken urte hauetan. Horregatik, joan den larunbatean Amesketa mendian planta sartze ederra egin zen. Iaz 15.000 izei (abeto) eta bago landatu baziren, aurten bertze hainbertze landatzen ari dira.

Nahiz eta hauetako aunitz basauntzak autsikitu dituzten, iazko gehienak

politak egiten ari dira. Ea laister Donamariako mendiak berde berde ikusten ditugun.

Bi bataio

Gero eta ume guttiago sortzen dela? Donamarian, behinpein azken boladan fuerte ari da indartzen. Joan den igandean bi bataio izandu genituen, biak mutikoak. Bata Iñigo Goñi Artze auzokoa eta bertzea Ander Mendiberri Uxanekoa.



laz landatutako zuhaitz gehienak politak egin dira dagoeneko

URROTZ

Iñauteriak ospatu ditugu aspaldiko partez

TXEMA URROTZ

Pasa den asteburu honetan, iñauteriak ospatu dira umore ederrean. Urte dexente baziren ez zirela ospatzen baina aurten gogo haundiz berreskuratu da ohitura zaharra.

□ **Bi denda** zeuden Urrotzen, baina ordaindu beharreko zergak eta behar bezain ongi ibiltzeko salmentarik ez izateak direla eta, biek ixtera behartuak

ikusi dira. Bat behintzat itxita dago eta bertzea laister itxiko omen dute. Krisi ekonomikoa honata ere ailegatu dela dirudi.

□ **Frontoiaren** obrak subentzionatzeko eskatu zitzaion Nafarroako Gobernuari. Esperantza haundirik ez zegoen, baina badirudi 2,5 milioitako laguntza ematea erabaki duela gobernuak.

□ **ETBk** grabatutako



kantatzen eta zenbait irakurketa egiten aritu ginen ETBk Urrotzko meza grabatzeko.

meza batean parte hartu kio jaunak ederki mugiarazi zuten jendea.

ASKIN OSTATUA

Bokadillo eta Plater konbinatuak

Elizagibela, Tfnoa: 45 00 52 - DONEZTEBE

BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezia 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE

DONEZTEBE

Iñauteriak, hilaren 18, 19, 20 eta 21ean

Larunbat arratsaldean izanen da karrozen desfilea

TXEMA ALDABE

Doneztebeko iñauteriak otsailaren 18, 19, 20 eta 21ean ospatuko dira eta azken urteetan bezala, jende dexente espero da herriko karriketan.

Ortzegunean afaria izanen da Belarra kafetegian, Lesakako Salvador Madariaga akordeolariarekin.

Ortiziralean, puxken biltzea egingen da baserri auzoetan eta arratsaldeko 6etan dantzaldia izanen da elizatarian Iturengo Ramontxorekin eta gauetz afari - dantzaldia Amezitia jatetxean.

Larunbatean, arratsaldeko 4etan karrozen desfilea eta egun osoan Lesakako txaranga. Mozorro eta karroza hoberenei sariak emanen zaizkie.

Igande arratsaldean, dantzaldia Naygi taldearekin eta tarte batean, zerria eta bi bildotsen zozketa.



Iñauterietako karroza eta mozorro hoberenei sari bana emanen zaie

ARTXIBOA

«Bidasoa erreka-aren saneamendua Europako exigenteena izanen da»

Jesus Arlaban, Nafarroako Gobernuako Herri Administrazioako zuzendaria izan zen Donezteben, zonaldeko ur horniduraren berri emateko. Herriko depuradora ere bisitatu zuen, 54,2 milioi kostatu duten obrak bukatuak baitaude dagoeneko,

nahiz eta oraindik osorik funtzionamenduan ez egon. Egunero 500 metro kubiko inguru tratatzen dira bertan, garbiketa tratamendu osoa emanez. Arlaban jaunak erran zenez, Bidasoako saneamendua Europako exigenteena izanen omen da.

ttipi-flash

□ **Josetxo Ezkurra III.** memoriale burutzen ari da. Bertan, 52 bikotek parte hartu dute sei kategoria ezberdinetan eta otsailaren 28rako finalak jokatzeko asmoa dute. Partiduak, asteazkenero arratsaldeko 5,30etan jokatzen dira.

□ **DYA** elkarteak 15 hila-bete daramazki Donezteben. Tarte horretan 96 ateraldi egin dituzte ambulanziarekin zerbitzu bereziak (kirol probak, zezenak, odol emailen besta, iñauteriak...) bezet. Momentuz 29 lagun ari dira lanean, baina eskertuko lukete boluntario gehiago apuntatzea, asteburuko zerbitzuak betetzeko nahiko lan izaten bait dute. Laguntzaile modura 3 irratifizionatu eta 2 buzeatzaile daude.



**AMEZTIA
Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

**MariCruz
LENTZERIA**

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - DONEZTEBE

NATUR ETAESKUTERAPIA

QUIROPRAKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizu deitu telefono honara:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - DONEZTEBE

Joan dira, berriro, Iñotik

Jende aunitz bildu zen bi herrietan

JUAINAS

Prestatzerakoan pilatu ziren nerbiuak eta dudak eskobatuz. Urtero bezala kanpotarrak erakarri ala uxatu behar diren eztabai-datu zen, bakoitza berearekin geratuz,...txabola altxatu, juerga bota... horrela ala beste modu batez behar zen? Joxepa, Mari Carmen eta Lolik sukaldeko ijiajajekin konformatu behar izan zuten, izugarri-zko lanak eginez umorea

mantentzen maistrak bait dira... neska-mutikuk moldatu zituzten "karrozak", ondarreko momentuan eta mekaguendioska aritu baziren ere... Goientxeneko Maria hil zen giro horren erdian... Ondorioak ate leizke? Denak bat ez gara etorriko, inolaz ere, eta konfiantza horrekin nik nereak emanen ditut: jendea juerga gogokin segitzen du, krisisa egon ala ez egon; exito haundiagoa du, behar bada, zubietar giroko



Iñotik, eta itundarrek, hori onartzuz, findu dute lan aparta eginez -zorionak tronkomobil eder horregatik-.

Eta heldu den urtean, Udalak ez dezala probextu "politikoak" ekartzeko, mozorroturik ez baldin bada!



Argazkiak:
KARMELE

GOIZUETA

Dena prest inauterietarako

Hil honen 21, 22 eta 23 ospatuko dira

ESTEBAN AROZENA

Herriko gazteek egin-dako hainbeste bileren ondoren esan genezake inauterietarako programa dagoeneko osatua dagoela. Dena den jai hauetan buru hauste haundienak, ohi den bezala, musikak eman ditu. Gainontzekoa aspalditik berdin mantentzen da, urtez urte hain hunkigarri eta zoragarria izaten dena goizuetar guzientzat.

Musika aipatu dugunez adierazi, Pagadi Anaiak trikitilarien esku egongo dela igandeko dantzaldia; aste-



Umore Ona txikiegi gelditu da hainbeste sozioendako

lehenean aldiz, herriko trikitilarietz gain iparraldeko IZAN Taldea izango dugu gure artean. Asteartean

azkenik, Martin trikitilariak eta bere taldeak alaituko dute karnabalen azkeneko eguna.

Umore Ona...

elkarteak urteroko asanblada orokorra burutuko du datorren larunbatean, otsailak 13, arratsaldeko 6,30etatik aurrera.

Eguneko gai zerrenda 13 puntuk osatzen dute. Bartzorde karguetarako hautaketa eta bazkide berrien onespena izan daitezkeelarik interesgarriena. Azken honetaz, esan, 7 "aspirante" daudela, hauetatik bat neska. Dena den, hau ez da garrantzizko berrietasuna, dagoeneko 5 emakume baitaude Umore Onako bazkideen zerrenda luzean.

ARESO

Aurten partaide gehiago Eskola Kontseiluan

JUANA MARI SAIZAR

Kalitate oneko eskola izateko ahaleginak egiten ari dira guraso elkartekoak eta irakasleak. Izan ere, oso harreran onak dituzte oraingoz. Duela aste batzuk berri egin zen orain arte bi andereño eta guraso batez osatutako Eskola Kontseilua. Aurten hiru irakasle daudenez, bi guraso aukeratu dira, batetik Trini (lehendik ere bera zegoen) eta bestea Geno.

Bestalde, lau hitzaldi antolatu ditu Guraso Elkar-teak, 'Izargain' sikologo



elkarteak emango dituenak: «Hazkuntza: desira eta beldurrak», «Sanitatea», «Gaztaroa eta kultura» eta

«Osasuna». Nahi duen guztia gonbidaturik dago eta hurrengoan zehaztuko ditugu egunak eta ordutegiak.

Santa Agedaren ohitura berreskuratu da aurten

Aspaldiko ohitura zaharra, Santa Ageda bezperan etxez etxe koplatan ibiltzearena berreskuratu egin da Areson. Aurten ume guziak elkartu eta baserritarrez jantziak hor ibili dira etxez etxe koplatan, makila kolpeen erritmoari jarraitu. Jende zahar asko, hau ikustean, emozionatu egin da bere gazte denborak gogoratzuz.

Udalak onartu du Euskara Zerbitzuaren aurtengo plangintza

Leitzaldeko ekintzen aurrekontua 14.674.982 pezetatakoa da

JOSEBA AZPIROZ

Aurrikusitako en artean hauek izan daitezke aipagarrienak:

- Udal inprimakiak euskaratuko dira eta langileen euskara maila hobetzeko ikastaroak egitea erraztuko.

- Euskara hutsean lan egingo duen irratia martxan jarriko da.

- Leitzako Kultur Taldearekin batera antolatuko diren ekitaldiak euskaraz izanen dira. Larunbatero eta opor egunetan umeen denbora libre betetzeko izaten diren tailer eta jokuekin segituko da.

- 'Sarriopapel'eko kartel guztiak euskaratu nahi dira eta dendari-tabernariekin ikastaro motz bat egin nahi da fakturak eta beste agiriak euskaraz egiten ikasteko.

- Aurten ere euskararen erabilera neurtuko da kalean.

- Urteroko kanpainak (matrikulazio eta transmisio kanpainak) e.a.



□ Leitzako **Pilota Txapelketaren finaleko** emaitzak: Bengoetxea-Barandiaran 18, Aizagirre-Sagastibeltza 11; Antzizar-Sagastibeltza 18, Genua-Iparragirre 14; Olano-Barriola 18, Bengoetxea-Aldaya 12; Buldain-Iparragirre 22, Buldain-Mariñelarena 19.

□ **Pablo Arozenak** irabazi zuen IV. Xake Txapelketa, azken partida Felipe Bernabeuren aurka jokatu.

□ Ostiralean hasi ziren 15 lagun Euskaltegiko **EGA ikastaroan**. Ostiral arratsaldetan izanen da 6etatik 10ak arte eta izena emateko epea irekita dago oraindik.

Bertso saioak leku haundiagoa behar du

Iñauterietako ekitaldirik aipagarriena Euskaltegiak antolatutako bertso saioa da. Bertsolariak zerbait berezia egiteko asmoa zutela esan ziguten eta lortu, lortu zuten. Zinera sartu ziren 500 lagun artean ez baziren, eta beste 200en modura kanpoan gelditu baziren sarrerarik

gabe, ETBn ikusteko aukera izango duzu.

ETBkoek hartu zutena eta ondorengo bertso aparian izandu ziren larogeita marrek bakarrik ikusi zutena, Iñaki Perurenak bertsolariarekin egin zuen saioa da. Harriekin bezain ongi moldatzen omen da gainera...

SAGASTI
Jatetxea

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

Lorca eta Idroia

ileapaindegia

Tfnoa: 610907 - LEITZA

ARABINDEGIA
JATETXEA

Tfnoa: 510052 • LEITZA

OIALDE TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 510077 • LEITZA

BAZTAN

'Leader' proiektuaren inizatibak bideratzeko

Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdirako izanen den bulegoa jarri da martxan Elizondon

JOSEBA IGARABIDE

Nekazal zonaldeetako ekonomia bultzatzeko asmoarekin 'Leader' proiektua jarri du martxan Europako Ekonomi Elkartek. Nafarroan 'Cederna-Garalur' Elkartearen izanena da proiektu hori gauzatzeko arduratuko dena, eta Baztanaldean konkretuki, Elizondoko Balleko Etxean izanen du bere bulego edo ofizina.

Eskeiniko dituen zerbitzuak

Bertzeak bertze, proiektu eta inizatiba publiko eta pribatu

ei laguntza tekniko eskainiko zaie, eta aldeberean, dirulaguntzen berri ere emanen da, lortzeko behar den tramitazioetan lagunduz.

Bertalde, proiektu berrien bideragarritasun azterketak edo estudioak egiteko laguntza eskainiko da baita, beti ere, zonako produktu eta baliabideak laguntzeko bidean eta aktibitate sozioekonomikoa bultzatzea bilatuz.

Noiz eta non

Orainarte aipatu diren kontuetaz nor-

Ixabel Elizalde da Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubin interesatuei beharrezko informazioa eta argibideak ematen ibiliko dena.



David Mindegia Mindegia Mugaireko gaztea, hilik suertatu zen bertze hiru gazterekin batera, otsailaren 3an Arraitzko Benta parean gertatutako istripu larrian.

nahik informazio zabalagoa nahiko balu, leku eta ordutegi batzuren berri eman digu Baztanaldean horretaz arduratzen den Ixabel Elizaldek. Elizondon Balleko Etxean egonen da astearte eta asteazkenetan 9etatik 2etara. Norbaitek aldeztuz aintzinetik telefonoz gelditu nahiko balu berekin, 580561 telefonoan aurkituko du Ixabel.

Urdazubikoek, berriz, ortzegunetan izanen dute Urdazubiko Herriko Etxean 9,30etatik 11,30etara, eta segidan Zugarramurdiokoek 12etatik 2etara.



Arizkongo inauterietako egun nagusia otsailaren 23an izanen da. Marian Larraidek utzitako argazkia duela 9 urte ateratakoa da.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939. ELIZONDO

MERKEALDIAK
iñauterietarako teletan

KASINO OSTATUA

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

Asteburu indartsua heldu zaiguna

Haurrak *Orakunde* egunean ari dira pentsatzen

PABLO MENDIBURU

Herri gehienetan gertatzen den bezala inauteriak ditugu aipagai aldi honetan. Azkeneko *ttipi-ttapan* erran bezala, Almandozko gazteak mozorrotu eta besta egiteko aukera ona dute asteburu honetan; Zigan ere, besta giroan haurrek 'orakunde' edo 'oilar eguna' ospatuko dute ortzira-lean, urtero bezala meza, herriari buelta, bazkaria eta jokuak eginez.

Gazteek beren aldetik ortziral arratseko afariarekin hasiko dituzte asteburu osoan ospatuko diren inauteriak.

Haurrekin segituz, Be-



Almandozera
Indioak...
Zigara
arabiar-
rrak

rronetan eta Anizen *Orakunde* otsailaren 20an ospatuko dute. Zigan eta Almandozera

dozen maixuek antolatzen dute egun hori, Aniz eta Berroetan alkateek.

Berroetan...

alkate berriak lehen baztarrea egin zuen komisioko ezberdinak osatzeko. Jende guti joan bazen ere, ura kloratzeko, auzolanetarako eta bestak antolatzeko komisiok osatu ziren.

Kirol arloan...

Pala Txapelketa aintzinerara doaie eta sokatirako neskak, Basaburua Baztan eta Berriozargo taldearen artean osatutako taldea, Galesera gan beharrak dire hilabete honen 26, 27 eta 28an Cardiff herrian ospatuko den Munduko Sokatira Txapelketara, goma gaineko espezialitatean. Animo eta ongi ikasi munduko bertze taldeen sekretuak.

M^{re} Dolores Mirana **TOPOGRAFIA**
NEURKETAK • PLANOAK
Lur neurketak
Luberrak
Landaketak, etab.
Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

**MENDI
OSTATUA**
Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

FZ
FOTO ZALDUA
ZURE EZKONTZARAKO
FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat
ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364
MARKOEN TAILERRA eta zure
karrereak ORDU BATEZ REBELATZEN
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

**BAZTAN
FUNERARIA**
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA
SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO
Tfnoak: 580924-580814-580373

**Es kisarni
jatetxea**
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

BAZTAN
**ELIZONDON BABES OFIZIALEKO ERREGIMEN
BEREZIKO ETXEBIZITZAK ESLEITZEKO DEIALDIA**
Baztango Udalak Alfonso Ciaurriz Vicente eta Vicente Ballarena Erramuzpe etxe-eragileekin batera, Elizondoko Braulio Iriarte karrikan babes ofizialeko eta erregimen berezian 48 etxeerakitzea bultzatzen du, eta hori dela eta zera jakinerazten du:
1.- Etxebizitza hauek eskeitzeko informazioa, baldintzak eta betebeharrak Baztango Balleko Etxeko bulegoetan bilduko dira eta Ciaurriz-Ballarena eragileen bulegoan, Elizondoko Santiago karrika 55ean.
2.- Etxebizitzen eskaerak horretarako dauden inprimaketan eta informazio lekuetan aurkeztu behar dira.
Epea: Otsailaren 1etik 22ra (biak barne)
Lekua: Baztango Balleko Etxeko bulegoetan jendearendako ordutegian.
3.- Etxebizitza hauen ezaugarriak kontutan hartuz, eskatzaileak izan daitezke adinez nagusiak diren pertsonak eta diru sarrerak 1991eko errenta deklarazioko zerga-oinarria erreferentziatzen hartuz, familiaren kopurua eta diru-sarrerak lanbidearteko soldata minimoa baino 2,5 aldiz haundiagoak ez badira.
Baztanen, 1993.eko urtarrilaren 23an
ALKATEA

URDAZUBI

Iñauterietan auzoz auzo ibiliko dira gazte koadrilak

Otsailaren 21, 22 eta 23an

ALIZIA OLAIZOLA

Igandea, 21, Dantxarri-
neko bentetako ibilbidea
eginen da, mozorroturik eta
Modesto akordeolariak
alaituz. Afarria eta dantzal-
dia Indiano-Baitan. Otsaila-
ren 22an, goizez, etxez etxe
ibiliko dira gazteak dantzak
eskeiniz Leorlas Alkerdi eta
Larraintako auzoetan barna.
Ilunabarrean haur mozorro-
dunen desfilea, afarria eta
gero haundien desfilea eta
dantzaldia. Otsailaren 23an
Iribere, Landibar eta Tejeria

auzoetako buelta. Afarria eta
finitzeko dantzaldia India-
no-Baitan.

□ **Urdazubi** eta Zuga-
rramurdiko eskolako hau-
rrak otsailaren 1 eta 2an Xo-
roxin irratitik aritu ziren.

□ **Mikelenbordako**
Martina Cordobak 91 urte
bete ditu urtarrilaren 26ean.
Amaiurren sortua, aspaldi
etorri zen Urdazubirat.
Osasun ona dauka eta den-
bora pasatzeko sukalde eta
baratzeko lanetan aritzen da.
Joan den urtean hilabete bat



Atsulai dantza taldekoak Ainhoako Iñauterietan

pasatu zuen bakantzetan Donsotian pasatzen du bere
Benidormen eta abuztua ahizparekin. Zorionak.

ZUGARRAMURDI

**Zugarramurdi futbol taldea
10 urte beranduago**

KORO ETA MARGARI

Orainarte kirol berri au-
nitzik ez dugu aipatu, pilo-
tazalez aparte ez dugulako
inolako kirol talderik, eta
berriak sortzeko manerik ere
ez. Bainan orain ez badugu
ere, lehen izan ginuen. Ar-
gazkian ageri diren haur-
txoak "Zugarramurdi" fut-
bol taldekoak ziren, ingu-
rukoen aurka jokatu zuten
(Sara, Urdazubi...) eta egia

errateko nahiko onak ziren.

Argazkiak 10 urte ditu
eta haur horiek orain 21-23
urteko gizontxoak dire.
Taldea desagertzeko zer
gertatu ote zen? Ba, haundi-
tzerakoan konturatu zirela
gaupasa futbola baino nahi-
giago zutela.

Espero dugu argazkia
ikusterakoan afiziona ber-
piztea, oraindik ez da beran-
du, gainera gauza bat beren



Haunditzerakoan kirolari hauek gaupasa egitea futbola baino nahiago dutela konturatu dira

alde dute: denak Julen Gue- eta bera bezain jokalaria onak,
rrero bezain politikak direla, zergatik ez?.

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



Mus lehiaketak hedatu dira herriko ostatuetan

Akelarrekoa abendoaren 19an burutu zen eta Herriko edantegikoa hilaren 12an hasiko

MIXEL ETA JACQUELINE

Akelarre ostatuko mus lehiaketa abendoaren 19an burutu zen. Orotarat hamazazpi bikotek parte hartu zuten eta huna hemen ondorioak: Xapeldun: Jean Michel Elizalde - Stéphane Etxebeste. Xapeldun orde: Beñat Zamora - Michel Saint Martin. Erran behar da ttantto batek egin duela diferentzia. Hirugarren: Jean Michel Iratzoki - Jean Marie Praderè. Laugarren Mattin Lafitte - Patrick Perugorria. Lehensariabildotsazen.

Ildoberetik joanez, **Jean Louis Oronoz** ostatuko nagusi gazteak, urte hastapen huntan osasun arazo batzu jasan behar izan ditu. Gaur



Akelarre ostatuko mus lehiaketan hamazazpi bikotetatik lehen postuak eskuratu zituztenak

egun, berriz itzulia da bere familiaren arterat eta ahal bezain laster pixkortzea desiratzen diogu bihotz bihotzetik eta saratar guzien izenean.

Herriko Etxeko edantegiko mus lehiaketa berriz, otsailaren 12an hasiko da. Aurtengo xapeldunek aste buru bateko ateraldi bat Nafarroa eta Errioxa alderat

irabaziko dute. Beraz bukatzean aipatuko dugu nor izan diren suertekoak.

Berri zorionsu bat

Urtarrilaren 30ean, gure herritar gazte batek Mattin Lafitte, Zuraideko trinkearen kudeatzea bere gain hartu du. Goresmen Mattin zure lan berriarentzat.

Bertsularien eguna

Azken alean erran bezala, otsailaren 14ean bertsu saio berezia antolatu du Olhain elkarteak Omordian. Bertsulariak, Laka, Etxegoin, Xanpun, Ezponda, Alkat, Arzallus, Nagore Fernandez, Bittor Elizagoien eta Estitxu Arozena izanen dira eta gai emalea, berriz, Daniel Landart.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten badazue hek ikusteak, abiso emanzazue Iruritako telefono hontara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguro nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino neretako gaur hobiago.

SARA

LEHENGO GAUZEN AZOKA
FOIRE ANTIQUITES

KIROL ATERPEAN edo SALLE POLYVALENTE

- ✓ Otsailaren 26, 27 eta 28an.
- ✓ 9,30etatik arratseko 7,30ak arte.
- ✓ Sarrera 15 libera • uririk 16 urtez behekoentzat

Antolatzailea: Haize-Hegoa erakundea
HAZPARNE

EZKONTZAK

Jose Fermin Zestau Zestau eta M^a Teresa Barriola Billabona Leitzakoak, urtarrilaren 23an.

Jose Miguel Aleman Mejias eta Ana Rosa Marin Perez, Elizondo eta Irungoa, urtarrilaren 1ean.

Jose Arriada Organbide eta M^a Rocio Nuñez Campos, Gartzain eta Mexicokoa, urtarrilaren 30ean.

Salvador Rollo Sagarzazu eta Ana Muguruza Labourdette, Miarritze eta Irungoa, urtarrilaren 29an.

JAIOTZAK

Ane Zabaleta Baños, Leitzakoa, urtarrilaren 19an.

Alaitz Danboriena Altzuguren, Etxalarkoa, abenduaren 19an.

Laura Gastearena Salgado, Elizondokoa, urtarrilaren 25ean.

Haizea Irigoien Urtxegi, Lesakakoa, urtarrilaren 31an.

Aingeru Alustiza Pellejero, Aresokoa, urtarrilaren 14ean.

HERIOTZAK

Maria Petrikorena Baleztena, Zubietan, urtarrilaren 31an, 83 urte.

Antonio Berekoetchea, Saran, urtarrilaren 25ean, 96 urte.

Jose Urrutia Bikondoa, Iruritan, urtarrilaren 16ean, 83 urte.

Antonio Fco. Urrutia Etxarte, Elizondon, urtarrilaren 18an, 49 urte.

Alfonso Etxenike Urruzola, Elizondon, urtarrilaren 20an, 87 urte.

Joaquina Larramendi Cordoba, Arraiozen, urtarrilaren 21an, 79 urte.

Ramona Rodriguez Alonso, Elizondon, urtarrilaren 23an, 89 urte.

Leon Fco. Sukilbide Ballarena, Elizondon, urtarrilaren 27an, 85 urte.

Pedro M^a Argaña Goikoetxea, Elizondon, urtarrilaren 28an, 91 urte.

Jesusa Iribarren Lortegi, Elizondon, urtarrilaren 30ean, 89 urte.

Concepcion Huarte Montalbo, Lesakan, urtarrilaren 28an, 51 urte.

Fco. Maritxalar Apeztegia, Lesakan, urtarrilaren 28an, 79 urte.

David Mindegia Mindegia, Muñairikoa, otsailaren 3an, 19 urte.

M^a Natividad Sein Alzuri, Beran, urtarrilaren 26an, 53 urte.

ARROPA DENDA



CERVANTES
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguruok
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

ARLA
ARDOTEGIA

Ardo botilatua
eta botilatu gabea
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO



JATETXEA
Tfnoa.: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

J. M. ANDUEZA IRIARTE

Instalazio elektrikoak

☛ *Sua itzaltzeko tresna guztiak*

- Mangerak
- Extintoreak
- Sua mozteko atekak: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...

☛ **Alarmak:** Suarenak, lapurretarenak, gasarenak...

Askain Karrika 12 ☎ 630854 - **BERA**

Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikulua


Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO

Aizkol apostua Donezteben

Hilaren 14ean, Patxi Mindegia eta Senosiainen artean

18 urtetako Patxi Mindegia zubietarra eta Antonio Senosiain 27 urtetako olaguetarraren arteko aizkol apostua igande honetan burutuko da Doneztebeko eskolako frontoian, eguerdiko 12,30etan.


Hasiera batean, Mindegia gazteak Juan Jose Lopez eta Jose Juan Barbarena, aurtengo bigarren mailako txapelkun eta txapelkun ordea desafiatu zituen



baina hauek ezezkoa eman zioten. Azkenean, Seno-

siain, iazko bigarren mailako txapelkunak onartu du norgehiagoka.

Apostuan milioi erdi bat paratuko du alde bakoitzak eta egin beharreko lana 16 kanaerdikoa da. Pago egurraren izanena da, bistan korapiloric gabekoa eta apostua baino egun bat lehenago paratuko da, arratsaldeko 3etatik 7etara. Sarreran jasotako dirua bi aizkolarien artean banatuko da.



Kirol plangintza otsailean aurkeztu behar da

Otsaila guzian zehar zabaldua dago eskualdeko eta zonaldeko espartzimendu kirol planifikazioa egiteko aukera. Planifikazio honetan, konpetizio kirola ez den guztia sartu daiteke (eskolak, mendi ibilaldiak, etab...). Planifikazioa aurkezteko, eskualdeko kirol koordinatzaileak Elizondon duen bulegora agertu edo 581279 telefonora deitu (Elixabet).

Basaburuako neskak munduko sokatira txapelketara Galesera

Otsailaren 26, 27 eta 28an Galeseko Cardiff herrian ospatuko den Munduko goma gaineko sokatira txapelketan, Basaburuabaztan eta Berriozargoko nesken artean osatutako taldea joanen da bertara.



BOTE - PRONTON

- Juanjo URRUTIA Saldiasko pilotariak profesional bezala debutatu du urte hasieran eskuz binakako txapelketan.
- APEZTEGIA, Aurtizgo pilotaria da jubentil mailako Nafarroako eskuz banakako txapelkun berria, Iruñean urtarrilaren azken aldean jokatu finalaren ondoren.
- 52 bikotek izena eman zuten Josetxo Ezkurra III. memorialean parte hartzeko eta otsailaren bukaera aldera jokatu dira finalak. Sei kategorietako partiduak asteazkeneko jokatzen dira eskolako frontoian, arratsaldeko 5,30etan.
- IV. Mendi-bizikleta Bilkuran txirindulari ugari bildu ziren Berara eguraldi ona probetuz.

Hamabostaldiko jokaldiak



Basaburuabaztan kirol kultur elkarte.

Elkarte berri honek estatutoetan "euskara hutsez" eginen direla gauza guztiak jartzeagatik (hizkuntza ofiziala euskara). Bertze herrietan ere beharko liriteke horrelako erabakiak.

Bigarren mailako eskuz eskuko pilota txapelketa.

Telebistaz (TB guztietan gainera) ikusi ahal izan genuen bigarren mailako eskuz eskuko finalean izandako ikuskizun lotsagarria. Pilotaren onerako irtenbideren bat aurkitu behar da.

Bidasoa KulTur Zerbitzua (BKZ): turismoa eta kultura bertatik gestionatzeko inizatiba berria

«Lekuko Garapena bertako jendeok egin behar dugu zonalde honen etorkizuna ziurtatzeko»

Bidasoa KulTur Zerbitzuaren proiektua lantzen ari dira 1986 eta 1991. urteen artean eskualdeko kirol egituran ibilitako hiru pertsonetako lan taldeak: Mattari Alzuart, Mikel Ibarrola eta Iñigo Doriak osatutakoa hain zuzen.

Baztan bailarako kultur eta turismo eskaintzaren (instalazioak, ibilbideak...) gestioa eta dauden egiturak erabiltzea izanzen zen bere eginkizuna. Hemen, BKZko arduradunen ustez, interesgarriena bertako jendeak inizatiba hartzea zen, honela gestio honen etorkizuna aseguratzeko. Kanpokoan esku utziz gero, dauden errekursoak urte batzuz explotatu eta ahal den dirua ateratzea izanzen zuten helburua edozein baliabide erabiliz, Mediterraneoan gertatu den bezala.



"Turistak urte guzian zehar etortzeko programa bereziak eginen ditugu, Baztan urte osoan erakargarria baita"

Lekuko Garapena hori da BKZkoen ustez, zonalde bateko biztanleak beraien errekursoak explotatzea. Horrek, alde batetik, bertako jendeari lana garantizatzen dio eta bertetik, hurrengo belaunaldietan ere, beraien seme-alabak edo ilobak enplegu horretan jarraitzea ziurtatzen du. "Bertako gazteok gure lanbidea sortu nahi dugu, aberastusunak gure artean banatu

eta berriz ere bertan inbertitu lortutako dirua, ez lantegi horretan kanpokoan barrenderoak izan, orain arte gertatu den bezala. Historikoki, zonalde hau inmigrazio lekua izan da: hemen gehien mugitzen zen jendea kanpora (Madrilera, Ameriketara...) aldegiten zuen dirutza egitera. Prozesu horri buelta eman nahi diogu".

Hasiara batean, Baztanen eginen da, gaur egun azpiegitura eratua bait

dago, baina Bidasoa inguru guzian zabaldu daiteke, uda honetarako hasteko asmoarekin.

BKZren lehen lana, denbora librerako programak saltzea da, bisitari eta zonaldeko biztanleendako. Bi bloketan banatzen da; bata, turismo bisitak (batez ere, kanpokoendako) eta bertzea kultur eta kirol ekitaldien programak (batez ere, bertakoendako). Honela, BKZk »kalitatezko pakete turistikoak»

salduko lituzke. Pakete hauetan, ostatua, zonaldeari buruzko dokumentazioa, mendi paseoak, gidariak eta kirol monitoreak, leku interesgarrien bisitak, jatetxe mahaiak bertako menuekin, garraioak, zaldiak, bizikletak, aseguroak, etabar eskeiniko lirateke. *“Negozio bat duen normahiri BKZko paketean sartzeko aukera emanen zaio, zuzeneko salmenta eta irudiaren salmentaren arteko zerbait da”.*

Turista kopuru mugatua

Baina BKZkoek azpimarratzen dutenez kliente kopurua mugatua izanzen zen, kalitatea gordetzeko: *“Gehienez zortzi pertsonetako taldeak egingen lirateke eta aste bakoitzean gehienez zazpi talde egonen lirateke”.* Aunitzez jende gehiago etorri daitekela badaki BKZk, *“baina ez dugu eskeintza masifikatu bat nahi, denborarekin kaltegarria izanzen zelako inguruarentzat”.* Erabelean, urte guzian zehar zabaldu nahi da Baztango turismoa: *“Orain arte turistak data seinalatueta etortzen dira: udako oporrrak, Aste Santua... Guk herriz, programa alternatiboak prestatu ditugu, lainoa, euria, inauteriak, udazkena... urte guzian zehar banatu nahi dugu jendea hoteletan, agroturismo etxeetan, jatetxetan...”.*

Gaur egun 40.000 pertsona inguru pasatzen dira




Mikel Ibarrola, Mattari Altzuarde eta Iñigo Doriak osatzen dute BKZko lan taldea

urtero Baztanetik, baina gehienak ez dute bertan lorik ere egingen. BKZren nahia, guttiago etorri arren, Baztango kultura eta ohiturak ezagutzea eta diru gehiago uztea izanzen zen.

Aintzinetik estudio sakon bat eginga

Proiektuan buru-belarri sartu aintzinetik, estudio eta estadistika lan bat eginga dute, bertara etortzen diren turistaren artean zenbait galdera eginez. Adibidez, agroturismo etxeetara zetorren jendeari faltan zer botatzen zuten galdetuta, gehienak ekitaldien beharra, giak... erantzuten zuten. Baztanetik bertako ohiturak eta tokiak ezagutu gabe aldegiten zutenaren ustea izaten zuten. Konklusio guztiak leku berera doaz: kultura duen jendea da Baztanera dato-



“Baztango turismoa aunitzez masifikatuagoa egin daiteke, baina galdera bat planteatzen da: zenbat denbora iraun dezake?”

rrena, leku ez masifikatuak bilatzen duena eta bertako kultura eta ohiturekiko errespeto handia dutenak. Jende honek lasaitasuna eta patxada nahi du, inolako jende aglomeraziorik gabe.

Ez bakarrik turismoa...

Baina BKZren asmoak ez doaz bakarrik turis-

moaren aldetik. Kultur eta kirol ekitaldiak ere bultzatuko ditu: *“iharduera ekonomiko eta sozialaren motore izan nahi dugu, ambito zehatz batean. Gure ustez turismoaren filtrorik egokiena kultura alor guztietan indartzea litzateke”.*

Aitor AROZENA

Saran berriz ere ikastola

Bultzatzaileek diotenez, "Seaskak hogeitahiru urte bete ditu eta esperientziak frogatu du emaitza onak ematen dituela"

Seaskak iparralde osoan mila ikasle baino gehiago ditu maila ezberdinen artean eta hogeiren bat ikastoletan banaturik.

Kanboko Xalbador ikastegia da bigarren maila eta lizeoa ematen duen ikastola bakarra.

Duela bi urte inguru Benafarroako Bunuzen (Bunus) ikastola berria sortu bazen ere, aurtien Saran zabaldu dena dugu Seaskaren ikastolarik berriena.

Saran orain hiru ikastetxe daude berriro; publikoa, pribatua eta ikastola.

Lehen bezala orain ere Olhain Elkarteak hartu du bere gain ikastolaren kudeatzea.

Eta guzi honetaz aritzeko Therese Guijarro, Michel Guerendiain eta Miren Halty, erakaslea ditugu solaskide.



Lehendik ere, 1988a arte, Saran bazegoen ikastola eta sasoirik hoberenean 17 ikasle ukan zituen.

ttipi-ttapa.— *Gaur egun ez da eguneroko kontua ikastola berri baten edekitzea. Zer? eragin du zuen kasuan pausu hori ematea?*

Sarako ikastola.— *Gurasoen eta Olhain Elkartearen nahia. Ikastola bat zabalitzen denean, herritarren euskal kontzientzia dago gibeletik.*

ttipi-ttapa.— *Zenbat*

haur dituzue?

S. I.— *Zortzik emana dute izena. Momentuz sei sartuak dira eta bertze biak orai sartuko dira. Bi eta sei urte artekoak hartzen ditugu.*

ttipi-ttapa.— *Zenbat haur eskatzen ditu gutieneko Seaskak?*

S. I.— *.Dozena bat gutienez behar da gaur egun ikastola bat idekitzeko, etorkizuna*

segurtatua izateko. Gaur egun Seaska negoziatzen dabil gobernamentuarekin komentziona bati buruz eta inportanta da gobernamentuari aurkeztea ikastola bat 12 haurrekin gutienez.

ttipi-ttapa.— *Halere Seaskak onartu egin du Saran 8 haurrekin ikastola zabaltea?*

S.I.— *Bai, oraindik izenpe-*



Gurasoen Batzarrea Therese Guijarro, Mixel Guerendiain, Alain Lafitte, Xabi Labeguerie, Koxe Oronoz, Karmen Ondicola eta Jean Olassok osatzen dute. Erakaslea, berriz, Miren Halty.

tzekoa baitzen komentzio-nea... eta gainera, bertzenaz Saran ez zelakoz sekulan idekiko ikastolarik eta Olhainen helburua arras bete gabe geldituko baitzen.

ttipi-ttapa.— *Nola finantziazten da?*

S.I.— Gurasoek antolatzen dituzten bestekin biltzen da dirua, eta gero, hilabetero ematen duten abonamenduarekin.

ttipi-ttapa.— *Hortaz gainera Hezkuntza Nazionaletik laguntzarik hartzen da?*

S.I.— Bon... hori behar da esplikatu. Seaskako 82 erakaslek gobernamentuarekin kontratatuak dira, Sarakoa barne. Halere, Seaskako 24 erakasle eta langile gelditzen dira kontratutik kanpo. Dena dela, ikastola bakoitxak haur kopuruaren arabera behar dio eman diru bat Seaskari eta Seaskak horrekin materialea, zenbait ikastolen lokazioa eta holakoak pagatzen ditu.



"Momentuz, ama ikastola indartzea da Sarako ikastolaren helburua"

ttipi-ttapa.— *Sarako ikastolaren lokazioa baita?*

S.I.— Ez, Sarako ikastolaren lokazioa Sarako Herriko Etxeak hartzen du bere gain.

ttipi-ttapa.— *Heldu den urteari begira, zein dire zuen esperatzak?*

S.I.— Bakarren batzuk ge-

hiago ukanen dugu segurki. Horretan ari gara eta izan ditaiken guraso guziei papera bat igorri diegu eta berarekin egon beharrak gara. Ikusi behar. Izan ere guretzat gutieneko haur kopuru hori lortzea arras inportantada. Hezkuntza Nazionale-

koek Seaskaren sistema pedagogikoa errespetatzen dute, bainan, kopuruarekin zorrotzagoak dira.

ttipi-ttapa.— *Kompetentzia arriskua ikusten ote dute edo...*

S.I.— Kontutan hartu behar da ikastola berrien sortzeak suposatzen duela eskola frantsesa behituz joaitea, eta horrek kezkek sortzen ditu. Halere, 'Ikasbi' edeki zutelarik ikastolak kalteak ukan zituen hasiera batean, gaur egun ez. Gaur egun Seaskak esperientzia dauka eta Ikasbik ere berea, eta biak dakite zein diren beren helburuak, batez ere hizkuntza mailan.

ttipi-ttapa.— *Hasieran aipatu duzuen 2-6 urte artekoak hartzen dituzue, baina gero zer?*

S.I.— Ikastolan segitzeko hurbilena Senperekoa da eta bertzenaz publikoa. Momentuz ama-ikastola indartzea da Sarako Ikastolaren helburua.

ttipi-ttapa.— *Zer erranen zenioten guraso berr bati bere haurrak ikastolara ekartzeko anima dadin?*

S.I.— Seaskak honezgero 23 urte bete ditu eta esperientziak frogatu du emaitza onak ematen dituela. Beraz, alde horretatik bertze eskolak bezala gira, hori bai, euskaraz erakasten dugu erakasten dugu, jakina. Nolanahi ikastola edekia dago eta noiznahi nornahi etor daiteke ikusterat nolakoa den eta baita informatzerat erakaslearengana.

Joxemanuel IRIGOIEN

MERKATU TTIKIA

Etxebizitzak

• **Bidasoa** edo Baztan aldean baserri baten bila gabiltza, alkilerrean edo erosteko. ☎ 450454 (8etatik 3etara).

• **Lesakan** 100m²kopisu amueblatua salgai. ☎ 637034 - 226747.

• **Beran** 90 m²ko pisua salgai, 15 m²ko buhardilla eta 10 m²ko garaje tikiarekin. ☎ 630272.

• **Alokatzan** den base-
rria bilatzen dut. 30-40.000
pzta artean ordainduko ni-
tuzke. ☎ 451518.

• **Donezteben** 104 m²
erabilgarriak dituen pisua
salgai 7 milioietan. Bista
onak. ☎ 585051 - 247280.

• **Etxebizitza** eta lantoki-
a 25 milioitan salgai.
Pentsio eta apopil etxea,
martxan dagoena. ☎ 94-
4159283 (Josean).

Lana

• **Publizitate** eta arte
enpresa batek komertziala
behar du Nafarroarako. In-
teresatuak Curriculum Vi-
tae eta argazkia bidali: Pu-
bliart, Alarde 3, 1.A, 20300
Irun.

Salerosketak

• **Tapiz** edo alfombra,
saloirako egokia, salgai. ☎
581023.

• **Bederatzi berogailu**
edo erradiadore salgai. Pro-
pano eta su-egurrerako ba-
lio dute. ☎ 581212.

• **Virago** 535 motorra
salgai. ☎ (943) 612886
(gaueko 10etatik 11etara).

• **R-5 GTL** kotxea NA-
M salgai, 70.000 pztatan.
Leitza. ☎ 510320.

• **Sukalde-kaldera** kale-
fakziorako salgai. ☎
631193 (7etatik aintzineran).

• **Ford Fiesta** 1400 sal-
gai 400.000 pezetatan. ☎
637872.

• **Setter** inglesa txaku-
rrak salgai (oso onak oila-
gor ehizarako). ☎ 302045
(5etatik 7tara). Mikel.

• **Opel Rascal** furgoneta
isotermoarekin prestatua,
NA-AB salgai. ☎ 510467.

• **Alfa Laval** ordeñadora
salgai, modu eta prezio
onean. ☎ 634133.

• **Opel Corsa** NA-S
salgai. Egoera onean dago.
☎ 630733.

• **Baserri** eta etxeetako
mobleak, kuadroak eta ain-

tzinako gauzak erosten di-
tut. ☎ 451518.

• **Kotxea** aldatu nahi
baduzu aukera ederra duzu.
Mota guzietako kotxe usa-
tuak salgai. ☎ 581023 (Ja-
bier).

• **Bi urtetako esnebehi**
nabarra eta 386 litrotako
esne tankea salgai Labaie-
nen. ☎ 450980.

• **Husqvarna** motoa 430
z.k.koa salgai (NA-AC). ☎
580925 (Josemanuel gaeuz).

• **Sava** Pegaso furgoneta
NA-L salgai, ITV pasatu
berria. ☎ 627622 (goizeko
12etatik aintzineran).

Denetarik

• **Lesakan** toki onean
denda traspasatzen da. Dei-
tu 637401 ☎ra.

• **Akordeoi** eta **baju**
elektrikoko klaseak ematen
ditut. Akordeoilari tituludu-
na naiz. ☎ 510192.

• **Ingeles** klaseak ematen
dira. Merkeak, esperientzi-
duna. ☎ 637095 (Mikel).

• **Lesakan** garaje bat al-
kilatzen da Antoiu 39an. ☎
585059.

• Emakumezkoen **erlo-
ju**a aurkitu da Lesakan. ☎
637229.

Harremanak

• **Oitzera** etortzen den
Mirenentzat zorionak bere
urtebetetzeagatik (urtarrilak
31). Ea egun horretan zure
gustoko mutil hori aurkitzen
duzun. Nekane.

• **Leitzako** Joseba Laz-
kanori zorion beroenak be-
reurtetetze egunean (6
urte). Guraso eta anaia Xa-
bierren partetik, muxu bat.

• **Legasako** Unai entzat
zorionak zure urte betetzear.
Muxu bat.

• **Arantzako** Ainhoari:
zorionak 12 urte egin ditu-
zula. Zure laguna Miren.

• **Zorionak** Berako Ali-
zia Iturriari, urtarrilaren
30ean 15 urte betetzeagatik.
Zure lagunak.

• **Juan Caballeroren-**
tzako: zorionak eta besar-
kada bero bat, zure emazte,
seme-alabak eta zure iloba-
txoen partez, urtebetetzear.

• **Legasako** Unai E-ri:
zorionak zure 16. urtebete-
tzean eta muxuak. Zure
neska.

• **Oitzko** Nekane: otsai-
lak 8an urtebetetzea duela,
zorionak. Ea ongi pasatzen
dugun eta jarraitu horren
jatorra. Iranzu eta Anabe.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK
DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA
EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....

.....

.....

.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE
HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA Tfnoa:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188



OCASO, S. A.

*Jose Susperregi Etxepeteleku,
Iruñako **SEGUROS OCASO** agentziaren ordezkaria eta
MALDAERREKA S.A.ren gerentea denak, bere klienteei
jakinarazi nahi die, hemendik aintzinerara bi aseguro berri
jartzen dituela zuen esku, dudarik gabe interesgarri gertatuko
zaizuenak:*

OCASO arrisku aunitzetarako familia aseguru

Funeraria zerbitzuen eskeintza, aseguratu en hilobiratzea edo errausterako beharrezkoak diren tramite, gestio eta gastuak barne daudela.

URREZKO OCASO

- Heriotza ondoko zerbitzua.
- Heriotz - elbarritze istripuak.
- Bidai asistentzia (herrialdetik kanpoko).
- Asistentzia integrala (barne).
- Famili mailako erantzukizun zibila.
- Muga gabeko mediku asistentzia
- Eritetxeratu beharko balitz eguneroko laguntza eskeiniz.

ASEGURO INTEGRALEN KONTZEPTU BERRI BAT

BITTIRIA KARRIKA 6, BEHEA - **LESAKA** Tfnoa: 637404

IRAGARKI HAU 5.300 ETXETAN SARTU DA.

ZUREA ERE SARTUKO DA

PUBLIZITATERAKO

ttipi-ttapa AUKERATUZ GERO.

ZUZEN BIDEA

ASESORIA JURIDIKOA eta KONTABLEA

M^a Jose Larráyo Ariztegi
ABOKATUA

Parrokia 1 - 2.
Tfnoa: 45 08 96
DONEZTEBE

Astelehenetik larunbatara (barne) zabalik
goizeko 9etatik arratsaldeko 2ak arte



- Kontsulta eta aholkularitza juridikoa
- Nominak
- Seguritate Soziala, jubilazio eta ezinduen pentsioak
- Lan eta errenta kontratuak
- Laguntza eta subentzioak
- Aitorpen fiskalak: IVA, Errenta eta Elkarretekakoa
- Kontabilitatea
- Ehiza eta arrantza lizentziak
- Bekak
- Multak
- «La Vasco - Navarra» aseguroak

SOZIO-LINGÜISTIKA IKASTAROA

NON?
BORTZIRIAK
BAZTAN
ETA
MALERREKAN



NOIZ?
OTSALA -
MARTXOA
BITARTEAN

MATRIKULATZEKO EPEA:

Otsailaren 1etik 19ra

IZEN EMATEKO TOKIAK:

Baztanen: 580006 tfnoan.

Bortziritan: 634125 tfnoan.

Malerrekan: 450454 tfnoan.

ANTOLATZAILEAK: Bortziriak, Baztan
eta Malerrekako Euskara Zerbitzuak

LAGUNTZAILEA: Nafarroako Gobernua



Baztan, Bortziriak eta Malerrekako Euskara Zerbitzuak